

M A R T I N ,

BERAK PARATAKO ESTROPARA-KO KANTAK SALTZEN.



(ON PEDRO MARÍA OTAÑO, EUSKAL-IZKRIBALARI BERRIYARI)

Martin.— Andre Asensi, kantak erosi
bizaizkit, gaur naiz ta
saldutzen asi;

Asensi.— etzatoz tratu charra aututa,
dendara kanta zarrak artuta;

Martin.— ez dira zarrak,
eragin eratzikoak farrak,
jotzea libre badira charrak.

Martin.— Ia arbitza, irakur bitza,
emateiot onak
dirala itza;
ezbedi gelditu paper gabe
lenbailen egin obedu jabe

Asensi.— ez daukat betik,
ken zaitez nere aldamenetik,
ken zaitez, kendu, zuaz emendik.

Martin.— Letzen balitu, ta entenditu,
emango leieke
milla meritu;
onlako kantikan aspaldiyan,
edo oraingo giza-aldiyan,
ezta argira;
paper bat artu eta begira
jar bedi, jarri, ederrak dira,

Martin.— Nola dan kia, ain da merkia
lan ontan nik egin
detan nekia;
artu bizaizkit chakur biyan bi,
bestela amarrekin amabi;

Asensi.— ez, ez, ez, ez, ez;
ez gaude zure kanten bearrez,
aituba zaude ezetz ta ezetz.

Martin.— Bañan Asensi, obek ez utzi,
artu bear nazki
ditzan ikasi;

Asensi.— artuko detana da nik kana,
puntan burni lodiya daukana,
aguro gero;
zuri kostillak jartzeko bero
jira naibaldin banazu ero.

Martin.— Eztet galduko, ditut salduko,
erostunak dira bai
azalduko;
adios echekoandre miña,
piper geiegirekin egiña,
beste bat arte;
bedorren gandik nai det aparta,
bizi munduba bukatu arte.

RAMON ARTOLA.
